



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2022ko abenduaren 13a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Nerea Ibarzabal Salegi

(Markina-Xemein, 1994)

Bizkaitar bertsolaria, idazlea eta kazetaria da.

Kolaborazioak egiten ditu hainbat mediotan: *Bizkaiko Hitzan* (2015-2019); *Gaur 8* (2017-2019) eta 2019an *Berrian* (*Bi Tarte* atala, *Txakur Gorriatik*), *Argian* eta *Euskadi Irratiko Faktoria* saioan. Iritzi-emaile ibili izan da gehienbat.

2016an *Txakur Gorria* sormen kolektiboa sortu zuen Mariñe Arbeo Astigarraga, Malen Amenabar Larrañaga eta Ane Labaka Mayozeekin. Autosorkuntza, autoedizio, autoekoizpenerako eratu duten sormen taldea da. Hainbat argitalpen egiten dituzte eta gidoigintzan ere lan egiten dute, hala nola ETB1eko *Hltzetik hortzera* saioan.

Gidoigintzan *Atera kontuak* programan lan egin zuen 2018an ETB1ean.

12 urterekin hasi zen bertsotan Juanjo Respaldizarekin, eta Markina-Xemeingo bertso eskolan jarraitu zuen gerora. Eskolarteko txapelketetan parte hartu eta Bizkaiko hainbat txapel jantzi zituen, baita gazte sariketan ere. Bizkaiko Txapelketan 2012an kantatu zuen lehenengoz, eta 2014an Lea-Artibaiko txapelduna izan zen. 2016an Bizkaiko Txapelketako finalista izan zen eta Txapelketa Nagusira sailkatu zen handik. 2018an ere finalista izan zen, eta 2021ean Bizkaiko Txapelduna.

2022ko irailean, bere lehen nobela kaleratu du: **Bar Gloria** (Susa, 2022).

Bar Gloria



Egunaren zurrunbiloa noiz apalduko daude Ana, Rakel eta Migel, patxaran gozotan hirurei eusten dien sarea ehuntzen segitzeko. Idi buru bat dute zelatan —gorputz gaixo baten itzala ilunpean—, eta distantzia gutxira dute Paradise, desira ukatuen dantzaleku, gela erreserbatu eta moketazko hormekin; eta baita hiria ere, lagunarte berri, arrotz denaren aire urduri eta modernitatearen lokalizazioekin.

Mundu bat kabitzen da Gloria tabernako azuleju gorri eta gainazal koipetsuen artean, eta denboraren ate ezberdinetatik sartuko da irakurlea bertara kontakizun honetan. Jendea da haren zimendu, eta konplizitate uneek, isildutako bortxa-markek, lanordu konpartituek zein elkarriketa tarteka mutuek epeldu bezala erreko dituzte habe horiek, beste batzuk eraikitzeak, akaso. Iragan hurbil baten hitzezko filmatze bat dakar Nerea Ibarzabal Salegiren estreinako nobelak.

Nerea Ibarzabalen argitalpenak

Txakur gorria (2016)

Atea irekiko ez lidaketen pertsonen etxean leihotik sartu nintzenekoa (2016)

Bar Gloria (2022) **N IBA**

Jakelinen egunerokoa (2022)

Kritikak esandakoak

“Ardo gorri basoak barraren amildegira jauzi egitea erabaki du eta lurlean lehertu da. Zerrautsez estali dituzte istripuaren arrastoak; baina ziur badela, hor zehar, kristal zatiren bat... Ongi etorri Bar Gloriarara. Taberna erraldoi honen gidari dira lopetegitarrak eta haiekin zerbitzari lanetan ibiltzen den Mikel, zeina sendiaren parte bihurtu den kasik denboraren poderioz. Komunitate honen konstelazioa aztertzeko aitzakia da eleberri hau. Bi ahizpek aktiboki parte hartzen dute zerbitzari lanetan, baina izaera kontrajarria dute: Ana da dena zuzen egiten duen kidea, baina familiarengandik eta tabernatik aldentzen saiatuko da ahal duen bezain pronto. Rakelek, berriz, ez du ihesbiderik. Ez ditu gauzak bere ahizpak bezain txukun egiten eta harekin aldera dezaten kondenaturik dago, bere aitaren begien aurrean batez ere. Aitak, Patxik, Rakelen bidea zuzendu nahi luke, baina ez daki alabarekin komunikatzen. Idiekin, ordea, ondo moldatzen da, eta haiei eskaintzen die alabari ukatzen dion mimoa. Ama, Bizenta, gertatzen den guztiaren konplize isila da. Hainbeste, ezen hil eta hainbat urtera bere nitxotik ateratzen dutenean bere gorpua ez baita usteldu. Beti hor, beti geldi eta isilik. Tabernatik kanpoko gertaerak eta bilkurak parrandaren edo gaixoaldiari lotuta daude, eta, haietan ere, konstelazioa ez da guztiz desegingo.

Denboran aurrera eta atzera egiten du eleberriak, baina giroa beti da duela hainbat urtetakoa, zoko usaina darion herri txiki batekoa. Gertakizun daudenak maisuki aurreikusten ditu Ibarzabalek tabernako elementuetatik abiatutako metaforen bitartez. Alkoholari kateatutako sendia marrazten du Ibarzabalek. Idi probak, txikiteroak, amantal koipetsuak, arbasoen bizitza errepikatzen dauden pertsonaiak, desira ezkutukoak eta ezkutuko erasoak... Giro tradizionalaren eta egungoaren arteko talka ikusgarria sustatzen du idazleak 27 kapitulu laburren bidez.”

Jon Martin-Etxebeste / El Diario Vasco, 2022-09-17

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Nerea_Ibarzabal

Txalaparta

<https://www.txalaparta.eus/eu/liburuak/bar-gloria>

BDB Bertsolaritzaren datu-basea

<https://bdb.bertsozale.eus/es/web/haitzondo/view/3391-nerea-ibarzabal>

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8622>